



Fruta-murala

FITXA

7

Helburuak

- FRUTA-AHORAKINA HANDITZEA.
- IKASLEAK MODU LUDIKOAN SARTZEA FRUTEN DASTATZEAN.

Ikastaroak eta arloak/Eremuak/Materiak _____

Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako 1go mailatik 3. mailara.
Natura-zientziak.

- Jokabide osasungarriak. Elikadura osasungarri eta orekatua.
- Gaitasun artistikoa.
- Hizkuntza plastikoaren eta bisualaren erabilera.

Gomendatutako adina _____

3-8 urteko ikasleak.

Jardueraren deskribapena/Metodologia _____

Ikasgela bakoitza lau taldetan banatuta egongo da, eta bakoitzari mural bat egokituko zaio, koloreztatu beharreko fruta batekin, edo, adinaren arabera, paper-pastarekin egindako frutak prestatuko dira, bolumena dutenak eta margotuta daudenak.

Neguok frutak (laranja, sagarra, udarea edo banana) edo udaberrikoak (melokotoia, marrubia, paraguaioa edo meloia) erabil daitezke, jarduera zein sasoitan planteatzen den kontuan hartuta. Ikasle handien kasuan, hain ohikoak ez diren baina inguruko azoketan aurki ditzakegun beste fruta batzuk planteatu ditzakegu.

Frutak bere horretan eramango dira ikasgelara, eta eredu izango dira ikasleek fruta naturalaren koloreetara ahalik eta gehien hurbiltzeko. Egindako muralak edo paper-pastazko frutak ikusgai jarriko dira ikasgelan.

Ondoren, eredu gisa erabilitako frutak dastatu bitartean, talde bakoitzak bere frutaren ezaugarriak azalduko dizkie gainerako ikaskideei: kolorea, zaporea, gogortasuna, garratzasuna, gozotasuna, usaina eta abar.

Jarduera honetan ere komunikazio-hizkuntza desberdinak erabil daitezke.

Ikusitako fruta-motak familia-esparruan jatera animatuko ditugu ikasleak.

Aniztasunari erantzuteko, hezkuntza-laguntzako berariazko premiak (HLBP) dituzten ikasleentzat beharrezko giza baliabideak edukiko dira (PT, hezitzailea, logopeda), eta irakasleek, tutoreek edo ikasle laguntzaileek aktiboki lagunduko diete, premia zehatzen arabera.

Jardueraren aurretik, ikasleen elikadura-alergiak edo kontaktuagatik dituztenak kontsultatuko dira, jarduerarako hautatutako frutei dagokienez.



Aukeratu
osasuntsu jatea
Zu irabazle!



Elige
comer sano
¡Tú ganas!

Euskadi, auzolana, bien común

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

OSASUN SAILA



DEPARTAMENTO DE SALUD

Egutegi eredu / Iraupena _____

Saio bat (45 minutukoa) sasoi bakoitzean: hotza edo beroa.

Ámbito de la actividad _____

Eskolako jangela Ikasgela Etxea Beste bat

Beharrezko baliabideak _____

Giza baliabideak:

Irakaslea.

Materialak:

Paper-zerrenda jarraia, hatzekin margotzeko pintura, mahai lagungarriak.
Fruten laminak, margotzeko.
Fruta freskoak eredu gisa.

Ebaluazio-metodoa/Adierazleak _____

Jardueraren ebaluazio jarraia bidez, ondorengo hau baloratuko da saio bakoitzean:

- Ikasleek ikusitako fruten ezaugarri morfologikoak ezagutzen dituzten.
- Ikasleek hautatutako fruta guztiak probatu dituzten.
- Ikasleek hautatutako frutaren bat jan duten familia-esparruan.

Informazio gehiagorako (aurretiazko esperientziak, material lagungarria, bibliografia...) _____

Aurretiazko esperientziak eta material lagungarria:

- http://repositori.uji.es/xmlui/bitstream/handle/10234/79586/forum_2003_28.pdf?sequence=1
- <https://conociendofrutasjb2018.blogspot.com/?m=0>
- <http://www.supercoloring.com/es/dibujos-para-colorear/frutas>
- <https://www.pinterest.es/pin/331436853809470617/>

Bibliografia:

- Park BK, Cho MS. Taste education reduces food neophobia and increases willingness to try novel foods in school children. *Nutr Res Pract*. 2016; 10(2):221-8.
- Reverdy C, Chesnel F, Schlich P, Köster EP, Lange C. Effect of sensory education on willingness to taste novel food in children. *Appetite*. 2008;51(1):156-65.
- Mustonen S, Tuorila H. Sensory education decreases food neophobia score and encourages trying unfamiliar foods in 8–12-year-old children. *Food Qual Pref*. 2010; 21(4):353-360.

